# BIZKAIKO CAMPUSEKO KANPOKO ETA BARNEKO GUNEAK ERABILTZEKO ARAUDIAREN

## ZIOEN AZALPENA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaiko Campusak helburu eta jarduera ezberdinetarako erabil daitezkeen hainbat gune ditu, eraikuntzen barnealdean eta kanpoaldean.

Barneko guneei dagokienez, Bizkaiko Campusak hainbat lokal, bilkura areto, entzunareto, ekitaldietarako areto eta bestelako barneko gune ditu. Horiek guztiak, Unibertsitateko kideek ez ezik, hala eskatzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikok erabil ditzake.

Orain arte, barneko gune horiek erabiltzeko prozedura ez zegoen arauen bidez erregulatuta; Unibertsitatearen urteko aurrekontuetan onartutako tasak eta horiekin batera zetozen oinarrizko irizpide batzuk besterik ez zituen.

Bestalde, barneko gune horiez gain, Bizkaiko Campusak eraikinetatik kanpo dauden hainbat eremu barne hartzen ditu. Horiek erabilera ezberdinak dituzte, esaterako: ibilgailuak aparkatzea, ibilgailuak eta oinezkoak bertatik igarotzea (gune urbanizatuak, bideak eta plazak), Unibertsitateko kideek atsegin hartzea (lorategidun guneak), ekitaldi ezberdinak egitea (anfiteatroak), etab. Orain arte, gune bakoitzak dagokion funtzioa bete besterik ez du egin, baina gune horiek guztiz bestelako jarduerak eta ekitaldiak egiteko erabil daitezke; betiere, funtzio nagusiak ahaztu gabe, eta

# REGLAMENTO DE USO DE ESPACIOS INTERIORES Y EXTERIORES DEL CAMPUS DE BIZKAIA

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Campus de Bizkaia de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea dispone de diversos espacios, tanto interiores como exteriores a las edificaciones que lo componen, que son susceptibles de ser aprovechables para distintos fines y actividades.

En lo que respecta a los espacios interiores, el Campus de Bizkaia tiene distintos locales, salas de reuniones, auditorios, salones de actos y espacios interiores de uso común que se encuentran a disposición, no sólo de los miembros de la propia comunidad universitaria sino también de cualquier persona física o jurídica que lo solicite.

Hasta este momento, el procedimiento para la explotación de estos espacios interiores no se encontraba regulada reglamentariamente, sino que únicamente se disponía de las tasas aprobadas al respecto en los presupuestos anuales de la Universidad y de una serie de criterios básicos que acompañaban a las mismas.

Por otro lado, además de estos espacios interiores, el Campus de Bizkaia dispone de diferentes áreas exteriores a los inmuebles que lo configuran y que se encuentran destinadas y delimitadas para usos diversos, como pueden ser el aparcamiento de vehículos, el tránsito de vehículos y peatones (zonas urbanizadas, viales y plazas), el esparcimiento de la comunidad universitaria (zonas ajardinadas), la realización de actos de diversa naturaleza (anfiteatros), etc, cuya utilización hasta el momento se ha limitado a las funciones propias de su naturaleza; pero que, sin olvidar nunca estas

Unibertsitatearen ohiko jarduerak errespetatuz eta jarduera horiekin bat etorriz.

funciones y siempre respetando la actividad universitaria ordinaria y compatibilizándola con la misma pueden ser aprovechados para la realización de actividades y actos de muy diverso carácter.

Horri dagokionez, aipatu behar dugu gune horiek, ohiko erabilerez gain, beste helburu eta erabilera batzuk izan ditzaketela, eta bai Unibertsitateko kideek bai kanpokoek erabil ditzaketela. Gainera, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak mota honetako jarduerak bultzatu nahi ditu, Campusa suspertzeko eta gizartera hurbiltzeko asmoz. Errektoreordetzaren helburua Unibertsitatea gizartetik kanpo dagoen atal estankoa izan ez dadila lortzea da, hau da, Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremana ahalik eta natural eta iraunkorrena izan dadila lortzea.

En este sentido, debemos señalar que, con independencia del uso ordinario y propio de estos espacios, los mismos pueden ser destinados ocasionalmente a otros fines y utilidades, tanto por los miembros de la comunidad universitaria como por personas ajenas a la misma, y que es voluntad del Vicerrectorado del Campus de Bizkaia impulsar este tipo de actividades con objeto de revitalizar el Campus y acercarlo a la sociedad. La voluntad del Vicerrectorado es conseguir que la Universidad no sea un compartimento estanco al margen de la sociedad a la que pertenece, sino que haya una interrelación lo más fluida y permanente entre ambas.

Dena den, ez dugu ahaztu behar jarduera horiek egiteak modu batean edo bestean eragina izango duela Campuseko unibertsitate bizitzan, hasiera batean horretarako diseinatu gabeko guneak beste helburu batzuetarako erabiltzearen ondorioz.

No obstante, no debemos olvidar que la realización de estas actividades afecta, de un modo u otro, a la vida universitaria del Campus; por lo que supone de ocupación de espacios para un fin para el que no están, en principio, diseñados.

Horrek guztiak guneak esleitzeko irizpideak, baimentzeko prozedura eta Bizkaiko Campuseko barneko eta kanpoko guneak kudeatzeko baldintzak zehazteko beharra dakar, Unibertsitatearen ohiko jarduerak ez direnak eta horiekin lotura zuzenik ez dutenak bertan garatu ahal izateko.

Todo ello exige determinar los criterios de asignación, el procedimiento de autorización y los requisitos de gestión de los espacios interiores y exteriores del Campus de Bizkaia para el desarrollo de todas aquellas actividades que no sean propiamente ni estén vinculadas directamente a las ordinarias de la Universidad.

Unibertsitate campusei dagokie beren esparruan dauden erabilera partekatuko eta irakaskuntza eta ikerketaren laguntzarako baliabide eta azpiegiturak kudeatzea. Era berean, Campuseko Errektoreordetzari dagokio bere lurralde esparruan Euskal Herriko Unibertsitatearen ondarea osatzen duten ondasun higigarri eta

Es competencia de los Campus Universitarios gestionar los recursos e infraestructuras de uso compartido y de apoyo a la docencia e investigación existentes en su ámbito. Paralelamente, corresponde al Vicerrectorado de Campus velar por el mantenimiento y conservación del conjunto de bienes muebles e

higiezinak, Campuseko unibertsitate jarduera antolatu eta garatzera zuzendutakoak, mantentzea eta zaintzea, betiere, unibertsitate ikastegietako zuzendaritza organoen esku dauden esparruak errespetatuz.

inmuebles que integran el patrimonio de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea en su ámbito territorial y destinados a la organización y desarrollo de la actividad universitaria en el Campus, respetando siempre el ámbito competencial de los órganos directores de los Centros Universitarios.

Hori dela eta, Bizkaiko Campuseko errektoreordearen proposamenari jarraituz, 2010eko otsailaren 22an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituen abenduaren 23ko 322/2003 Dekretuaren 266.2 g) artikuluak eta Bizkaiko Campuseko Batzarraren araudia onartzen duen Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiaren 2006ko maiatzaren 16ko Ebazpenaren 11.1 g) artikuluak emandako eskumena erabiliz, Bizkaiko Campuseko Batzarrak ondorengoa onartu eta xedatzen du:

En su virtud, a propuesta del Vicerrector de Campus de Bizkaia, previa deliberación y aprobación en su reunión celebrada el día 22 de febrero de 2010, la Junta de Campus de Bizkaia, en el ejercicio de la competencia que le otorga el artículo 266.2ºg) del Decreto 322/2003, de 23 de diciembre, por el que se aprueban los Estatutos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea y el artículo 11.1ºg) de la Resolución de 16 de mayo de 2006, del Secretario General de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se aprueba el Reglamento de la Junta de Campus de Bizkaia, aprueba y dispone el siguiente

## BIZKAIKO CAMPUSEKO GUNEAK ERABILTZEKO ARAUDIA

## REGLAMENTO DE USO DE ESPACIOS EN EL CAMPUS DE BIZKAIA

### LEHENENGO TITULUA
### HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK

### TÍTULO PRIMERO
### OBJETO Y CRITERIOS GENERALES

1. artikulua.- Hauek dira araudi honetako xedapenen helburuak:

1º. Campuseko irakaskuntza eta ikerketa jarduerarekin zuzenean lotuta ez dauden jardueretarako erabil daitezkeen Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko Campuseko barneko eta kanpoko guneei ohiko eta ezohiko erabilerak esleitzeko irizpideak zehaztea.

Artículo 1.- Las disposiciones de este reglamento tienen como objeto:

1º. Determinar los criterios de asignación de usos ordinarios y extraordinarios a los espacios interiores y exteriores del Campus de Bizkaia de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea que son susceptibles de ser utilizados para actividades que no están directamente relacionadas con la actividad docente y académica del Campus.

2º. Erabilera eta aprobetxamendu horiek

2º. Definir las bases y el procedimiento para

esleitzeko oinarriak eta prozedura zehaztea.

2. artikulua.- Araudi honen eraginpean dauden guneak eranskineko zerrendan agertzen direnak dira.

3. artikulua.- Bizkaiko Campuseko unibertsitate guneetan garatuko diren jarduerek ondorengoak errespetatu eta horiekiko bateragarriak izan beharko dute:

1º. Estatutuetan adierazitako Euskal Herriko Unibertsitatearen izaera eta helburuak.

2º. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean agertzen diren balioak.

3.º Ingurumen balioak

4º. Bizkaiko Campusak defendatzen dituen aniztasun, elkartasun, berdintasun eta tolerantzia balioak.

5º. Burutu nahi den bilkura, ekitaldi, ikuskizun eta ospakizun motari dagokion legedia.

4. artikulua.- Baimena ematen duen organoak eskumeneko boterea eta estimazio askatasuna dauzka, araudi honetako xedapenen eta ondorengo irizpide orientatzaileen arabera:

a) Edozein motatako jarduerak egin ahal izango dira, Unibertsitatekoak eta kanpokoak.
b) Lehentasuna emango zaie unibertsitateko jarduerei eta kultura eta zientzia unibertsalaren ezagutza hedatzeko jarduerei.
c) Baztertu egingo dira araudi honetako 3. artikuluan ezarritako printzipioekin bat ez datozen jarduerak edo Campuseko irakaskuntza eta akademia jardueren garapena eta funtzionamendua modu esanguratsuan eteten dutenak. Betiere, kontuan hartu beharko da irakaskuntza eta akademia jarduera Unibertsitatearen

asignar estos usos y aprovechamientos.

Artículo 2.- Los espacios a los que afecta este Reglamento son los relacionados en el anexo.

Artículo 3.- Las actividades a desarrollar en los espacios universitarios del Campus de Bizkaia deben respetar y ser compatibles con:

1º. La naturaleza y los fines de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea que se encuentran señalados en sus Estatutos.

2º. Los valores plasmados en la Declaración Universal de Derechos Humanos.

3º. Los valores medioambientales.

4º. Los valores de pluralidad, solidaridad, igualdad y tolerancia que propugna el Campus de Bizkaia.

5º. La legislación correspondiente al tipo de reuniones, actos, espectáculos y celebraciones de que se trate.

Artículo 4.- El órgano autorizante dispone de potestad discrecional y libertad de apreciación, conforme a las disposiciones de este Reglamento y a los siguientes criterios orientadores:

a) Podrán realizarse todo tipo de actividades, ya sean propias de la Universidad como ajenas a la misma.
b) Se dará prioridad a la actividad propiamente universitaria y a la difusión de conocimientos de la cultura y la ciencia universal.
c) Quedará excluida la actividad que no concuerde con los principios plasmados en el artículo 3 de este reglamento o que perturbe de modo significativo el normal desarrollo y funcionamiento de la actividad docente y académica del Campus; teniendo siempre en cuenta que la actividad docente y académica es el

nukleoa eta gune nagusia dela eta, horregatik, ahalik eta zintzotasun handienarekin errespetatu behar dela.

núcleo y centro neurálgico de la Universidad y que, como tal, debe ser respetada con la mayor escrupulosidad posible.

5. artikulua.- Jarduerak gauzatzeko bete beharreko baldintzak:

1º. Eskatutako gunea edo lokala erabili ahal izateko araudi honek agintzen duen baimen zehatza lortzea.

2º. Araudi hau betetzearen eta jarduera edo ekitaldiak eragiten dion beste edozein alderdiren erantzukizuna bere gain hartuko duen pertsona bat edo gehiago, identifikatuta eta egiaztatuta egongo dena, izendatzea.

3º. Jarduerаren garapenak ez dezala eraginik izan jarduera kokatutako lekuari dagokion irakaskuntza edo ikerketa jardueran. Era berean, ezin izango die eragozpenik sortu, arrazoizko mugen barnean, inguruko eraikinetan (nola Unibertsitatekoetan hala kanpokoetan) dauden pertsonei.

4º. Aurreikusitakoaren arabera bertaratuko den pertsona kopurua aukeratutako gunearen edukierarekin bat etortzea.

5º. Beharrezko materialen biltegiratzea eta energia elektrikoaren hartunea aurretiaz eta modu eraginkorrean aurreikustea, Unibertsitateko zerbitzu eskudunen irizpenei jarraituz.

6º. Jarduera edo ekitaldi motaren arabera, erabilitako gunea eta bertako inguruak garbi geratuko direla bermatzea, Unibertsitateak utzitako garbiketa zerbitzuak kontuan izan gabe.

Artículo 5.- Para la realización de la actividad son requisitos necesarios:

1º. Obtener la autorización expresa preceptuada en este reglamento para disponer del espacio o local solicitado.

2º. Que se determine una persona o personas, identificadas y legitimadas, que se responsabilicen del cumplimiento de este reglamento y de cualquier otro aspecto al que se condicione la realización de la actividad o acto.

3º. Que el desarrollo de la actividad no incida sobre la actividad docente o investigadora que corresponda al lugar de ubicación. Tampoco podrá suponer una molestia, dentro de los límites racionales, para las personas que estén en edificios, universitarios o extrauniversitarios, del entorno.

4º. Que el número de personas que se prevé que acudan se ajuste a la capacidad del espacio elegido.

5º. Que se prevea el almacenamiento de los materiales necesarios y la toma de energía eléctrica, con anterioridad y satisfactoriamente, según dictamen de los servicios universitarios competentes.

6º. Que, en función del tipo de actividad o acto de que se trate, se garantice la limpieza del espacio utilizado y sus alrededores, independientemente de los servicios de limpieza prestados por la Universidad.

6. artikulua.- Ekitaldia, ikuskizuna edo jarduera ez bada eskaerarekin batera aurkeztutako memoriarekin bat etorriz garatzen, baimena emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira edo ordena publikoa edonola nahasten bada, Euskal Herriko Unibertsitateak edozein unetan amaitutzat eman ahal izango du.

Artículo 6.- La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea podrá, en cualquier momento de la celebración del acto, espectáculo o actividad, dar por finalizado el mismo si no se desarrollase conforme a la memoria presentada con la solicitud, se detectase el incumplimiento de las condiciones que se establecieron para su autorización o se

produjese cualquier alteración del orden público.

7. artikulua.- Baimendutako ekitaldia edo jarduera amaitu ondoren, sustatzaileak erabilitako gunea edo lokala lehengo egoera berean utzi beharko du. Horretarako, ahalik eta denbora gutxienean, lekua garbitu eta azpiegitura kendu beharko du. Gai horiei buruz araudi honetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada, Euskal Herriko Unibertsitateak lan horiek sustatzailearen kontura egingo ditu, horretarako utzitako fidantza erabiliz.

Artículo 7.- Una vez finalizado el acto o actividad autorizada, el promotor del mismo deberá restablecer el espacio o local que ha ocupado en las mismas condiciones en que se recibió, procediendo en el menor tiempo posible a realizar las labores de limpieza y retirada de la infraestructura. En caso de que se incumpla alguna de las obligaciones contenidas en el presente reglamento referentes a estas cuestiones, la Universidad del País Vasco efectuará estas labores a cargo del mismo, ejecutando con este fin la fianza depositada.

## BIGARREN TITULUA
## ESKAERA PROZEDURA

## TÍTULO SEGUNDO
## PROCEDIMIENTO DE PETICIÓN

8. artikulua.- Ekitaldia edo jarduera egiteko, beharrezkoa izango da Campuseko Errektoreordetzaren, edo jarduera gauzatuko den gune edo lokala barne hartzen duen ikastegiaren, baimena izatea. Gainera, jarduerak araudi honetan ezarritakoa bete beharko du.

Artículo 8.- La celebración del acto o actividad estará sujeta a la previa autorización del Vicerrectorado de Campus, o del Centro del que dependa el espacio o local en el que se va a realizar la actividad, y deberá observar lo dispuesto en el presente reglamento.

9. artikulua.- 1. Beren kudeaketa kargua, irakaskuntza enkargua, laneko zeregina edo beren izaera dela eta, eta, betiere, horri lotuta, jarduerak antolatzen dituzten Unibertsitateko kideek ez dute inolako ordain ekonomikorik eman behar gunea edo lokala erabiltzeagatik. Puntu honetan Unibertsitateko kidetzat hartuko dira katedradunak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, ikasleak, UPV/EHUko langileak edo aurreko talderen batekin lotura duen edozein pertsona juridiko.

Artículo 9.- 1. Los miembros de la comunidad universitaria que organicen actividades en razón de su cargo de gestión, encargo docente, función laboral o conforme a su propia naturaleza, y siempre que el acto se encuadre dentro de las actividades universitarias relacionadas con el mismo, no tendrán el deber de entregar ninguna contraprestación económica por el uso del espacio o local. Se entenderá por miembros de la comunidad universitaria a estos efectos a los catedráticos, profesores, personal de administración y servicios, alumnos, trabajadores de la UPV/EHU o cualquier tipo de persona jurídica vinculada a cualquiera de los grupos anteriores.

2. Aurreko paragrafoaren esparruan jarduten ez duten Unibertsitateko kideek eta Unibertsitateaz

2. Los miembros de la comunidad universitaria que no actúen en el marco del

kanpoko pertsonek Unibertsitateko agintaritza eskudunak finkatutako tarifei dagokien diru kantitatea ordaindu beharko dute.

3. Oro har, unibertsitateko kideek eurak atxikita dauden ikastegiko lokalak eta kanpoaldeak erabiliko dituzte jarduerak egiteko. Alabaina, burutzekoa den ekitaldirako funtsezkoak diren higiezinik ez badago ikastegian edo gune horiek erabilgarri ez badaude, orduan, eta orduan besterik ez, Bizkaiko Campuseko beste ikastegiren batenak edo Campuseko Errektoreordetzarenak diren gune eta lokalak erabiltzea eskatu ahalko da. Horrelakoetan, ikasleen, erakundeen eta abarren kasuan, Dekanotzaren edo Ikastegiko Zuzendaritzaren txostena edukitzea beharrezkoa izango da. Bertan jasoko da data horietan ez dagoela higiezinik erabilgarri.

10. artikulua.- Aire zabaleko guneak, lokalak, bilkura gelak, ekitaldietarako aretoak, etab. erreserbatzeko eskaera idatziz egin beharko zaio Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzari edo, ikastegi jakin baten menpe dauden guneak direnean, bertako dekanotzari edo zuzendaritzari. Eskaeran puntu hauek zehaztuko dira espresuki:

1º. Ekitaldiaren edo jardueraren sustatzaileen identifikazioa. Identifikazio hori egiteko, sustatzaileek ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte nahitaez:

a) Eskatzailea merkataritza elkarteren bat baldin bada, elkartea eratzeko eskrituraren kopia eta identifikazio fiskaleko zenbakiarena; eta, eskatzailea elkarte edo fundazioren bat baldin bada, estatutuen eta elkarteen edo fundazioen erregistroko izen-ematearen kopia. Era berean, eskaera aurkezten duen pertsonaren ordezkaritza botereen kopia eta nortasun agiri nazionalarena eman beharko dira.

párrafo anterior, y las personas ajenas a la Universidad, tendrán que abonar la cantidad dineraria correspondiente a las tarifas que haya fijado la autoridad universitaria competente.

3. Como norma general, los miembros de la comunidad universitaria deberán realizar sus actividades en los locales y espacios exteriores adscritos al Centro al que pertenezcan; y, únicamente cuando éste carezca de inmuebles adecuados para la realización del acto previsto o no tenga espacios disponibles, se podrá solicitar a cualquier otro Centro perteneciente al Campus de Bizkaia o al propio Vicerrectorado de Campus la utilización de sus espacios y locales. En este caso, y cuando se trate de alumnos, asociaciones, etc. deberán contar con un informe del Decanato o de la Dirección de su propio Centro en el que se señale la inexistencia de un inmueble adecuado en las fechas previstas para su realización.

Artículo 10.- La solicitud de reserva de espacios al aire libre, locales, salas de reuniones, salones de actos, etc. deberá hacerse por escrito dirigido al Vicerrectorado del Campus de Bizkaia o, en caso de que se trate de espacios que dependan de un Centro concreto, al Decanato o Dirección del mismo, y en ella se determinará, de manera expresa:

1º. La identificación de los promotores del acto o actividad. Esta identificación deberá llevarse a cabo necesariamente mediante la aportación de los siguientes documentos:

a) En caso de que el solicitante sea una sociedad mercantil, copia de la escritura de constitución de la sociedad y del Número de Identificación Fiscal; y, en caso de que se trate de una asociación o fundación, de los Estatutos y de la correspondiente inscripción en el Registro de Asociaciones o Fundaciones. Asimismo, se deberá aportar copia de los poderes de representación de la persona que presenta la solicitud y su documento

b) Sustatzaileak pertsona fisikoak badira, eskatutako ekitaldi edo jardueraren erantzukizuna beren gain hartzen duten pertsonen nortasun agiri nazionalaren kopia.

Eskatzaileak Unibertsitateko kideak badira, ikasleak, irakasleak edo administrazio eta zerbitzuetako langileak diren ere adierazi beharko dute, eta baita beren ikastegia, saila, institutua, katedra, maila edo lanpostua ere.

2º. Araudi honetan ezarritakoa hertsiki betetzeaz arduratuko den pertsonaren edo pertsona multzoaren identifikazio zehatza eta, hala badagokio, baimena emateko jarri zaizkien baldintzak.

3º. Eskatutako ekitaldia edo jarduera gauzatzeko toki, gune, ikasgela, areto, ospakizun areto, etab. zehatza, erabilera data edo aldia, eta hasiera eta amaiera ordutegia.

4º. Arrazoi edo kausa nagusia eta jardueraren garapen programa.

5º. Aurrekontua eta, hala badagokio, lor daitezkeen irabazi ekonomikoen helburua.

6º. Argi eta soinu instalazioak, edari edo janarien banaketarako guneen instalazioak edota bestelakoak. Jarduera egiteko instalazio elektrikoren bat edo karpa, aldamio edo antzeko elementuren bat jarri behar izanez gero, eskaerarekin batera beharrezko informazio teknikoa eman beharko da eta instalazioa segurtasun eta prebentzio arauak errespetatuz muntatu eta desmuntatuko dela bermatu beharko da, Unibertsitateko organo eskudunek emandako argibideei jarraituz.

7º. Jardueraren ordena eta segurtasuna, produktuen biltegiratzea, higiene zerbitzuen erabilera eta hartutako gunearen garbiketa (jarduera amaitutakoan) bermatzeko hartutako neurriak, betiere, jarduera edo ekitaldiaren

nacional de identidad.

b) En caso que los promotores sean personas físicas, copia de los Documentos Nacionales de Identidad de las personas que se hagan responsables del acto o actividad solicitada.

Si los solicitantes son miembros de la comunidad universitaria, se indicará además si son alumnos, profesores o personal de administración y servicios, y su Centro, Departamento, Instituto, Cátedra, curso o puesto laboral.

2º. La identificación concreta de la persona o personas que se van a hacer responsables directos del estricto cumplimiento de lo preceptuado en este reglamento y, en su caso, de las condiciones a las que se les condicione la autorización.

3º. El lugar, espacio, aula, sala, salón de actos, etc. concreto, la fecha o período de uso, y el horario de inicio y finalización propuestos para el acto o actividad solicitada.

4º. El motivo o causa principal y el programa de desarrollo de la actividad.

5º. El presupuesto y, en su caso, el destino de los beneficios económicos que puedan obtenerse.

6º. Las instalaciones previstas de luz, sonido, puntos de distribución de bebidas o comidas, y cualquiera otra. Si para la celebración de la actividad está previsto algún tipo de instalación eléctrica o la colocación de carpas, andamiajes o elementos similares, la solicitud deberá incluir la información técnica necesaria y garantizar que su montaje y desmontaje se realizará con respeto de las normas en materia de seguridad y prevención, conforme a las instrucciones emanadas desde los órganos universitarios competentes.

7º. Las medidas adoptadas para garantizar el orden y la seguridad de la celebración, el almacenamiento de los productos, la utilización de servicios higiénicos y la limpieza del espacio ocupado una vez finalizada la actividad, todo

izaera ikusita beharrezkoa baldin bada.

8º. Ordena sistema, jardueraren ezaugarriak ikusita eta kontsulta egin ondoren, Bizkaiko Campuseko Gerenteordetzak hala ezartzen duenean. Sistemak ezaugarri hauek izango ditu:

a) Bizkaiko Campuseko zinpeko zaintzaileen zerbitzuaren errefortzu gisa jardungo du eta, uneoro, zaintzaileen argibideen menpe egongo da.
b) Sustatzaileek ordainduko dute.
c) Campuseko Gerenteordetzak zehaztutako pertsona kopuruak osatuko du.
d) Aurreikusi ahal izango diren bestelako segurtasun eta higiene neurriak behar izango ditu.

9º. Ondorengoak betetzeko konpromiso formala:

a) Jarduera normaltasun osoz gauzatzea.
b) Utzitako lekua jarduera egin aurreko egoera berean uztea, betiere, arrazoizko irizpideak betez, gehienez 24 orduko epean, ezohiko arrazoiek lekua aurreko egoeran lehenago uztea eskatzen ez badute behintzat.
c)

a) Espresuki onartzea antolatutako jardueraren ondorioz sor daitezkeen kalteen erantzukizuna eta, bereziki, jarduera gauzatzearen ondorioz gauzei edo pertsonei egindako kalteen erantzukizun zibila. Eskatzaileak erantzukizun hori bere gain hartuko ez balu, Dekanoak edo Ikastegiko Zuzendariak (eskatzailea ikastegi berberekoa denean) edo Campuseko errektoreordeak (eskatzailea beste ikastegi batekoa denean) egoki deritzon ekintzak burutuko ditu hark erantzukizuna onar dezan. Edozelan ere,

ello en el caso de que la propia naturaleza de la actividad o del acto lo requiera.

8º. El sistema de orden cuando, a la vista de las propias características de la actividad y tras consulta previa, así lo disponga la Vicegerencia del Campus de Bizkaia, de tal modo que:

a) Actuará como refuerzo del servicio de guardas jurados del Campus de Bizkaia y supeditados, en todo momento, a las instrucciones emanadas por el mismo.
b) Será sufragado por los promotores.
c) Contará con el número de efectivos que determine la Vicegerencia del Campus.
d) Requerirá, en su caso, otras medidas de seguridad e higiene que puedan preverse.

9º. El compromiso formal de:

d) Desarrollar la actividad con plena normalidad.
e) Restablecer el lugar asignado en las condiciones previas a la realización de la actividad, siempre cumpliendo criterios de razonabilidad, en el plazo máximo de 24 horas, salvo que razones extraordinarias exijan un restablecimiento más temprano del lugar.
